


MUNDUKO MERKATARITZA

Nazioarteko merkataritza sendo hazi zen 2017an


Munduko esportazioen bilakaera

Mila milioi dolar



Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) hilabeteka argitaratzen dituen datuetan oinarrituta, 2017an salgaien nazioarteko merkataritza, dolarretan, suspertze garrantzitsua jaso zuen eta %10,0 hazi zen. Datu horrek amaiera eman die bi urtez jarraian izan diren jaitsierei. Orobat, azken sei urteko gorakadarik handiena da. Hobekuntzaren jatorria Europako eta Asiako esportazioen bultzada sendoan datza, salmenta guztien %78 inguru bildu baitzuten. Halere, eremu nagusi guztiek hazkunde esanguratsuak eskuratu zituzten.

Munduko esportazioen banaketa




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Munduko Merkataritza Antolakundearen datuetan oinarrituta.

SALGAIEN MERKATARITZA DOLARRETAN
Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
ESPORTAZIOAK								
Guztira	21,4	18,4	0,2	2,9	1,0	-11,0	-2,5	10,0
Ipar Amerika	22,6	16,2	3,9	1,9	3,1	-8,0	-3,4	7,3
Europa	12,3	17,8	-2,7	4,7	0,4	-12,5	-0,2	9,3
EB-barne	9,8	15,9	-7,1	3,3	3,4	-12,6	1,3	9,6
EB-kanpo	17,3	20,7	0,1	6,5	-1,9	-12,2	-2,7	10,0
Japonia	32,6	6,9	-2,9	-10,5	-3,4	-9,5	3,2	8,3
Txina	31,3	20,3	7,9	7,8	6,0	-2,9	-7,7	7,9

Europar, emaitza onenak Europar Batasunean bildu ziren, salmentak %9,8 handitu zituelako. Kontinente zaharraren barnean zein kanpoan handitu ziren salmentak, bi ataletan %10,0aren inguruan hazita. Asian, salmentak 6.240 mila milioi dolarretara iritsi ziren, historia osoko bigarren zenbakirik gorrena baita, eskualde barneko trafikoaren igoerari eta Iparramerikako inportazio eskareren susperraldiari esker. Txina da, alde handiz, eremu horretako esportatzailearik handiena, salmenta guztien ia erdia bereganatuta. Japoniak ere emaitza ona eskuratu zuen 2017an.

Europar Batasunaren esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

SALGAIEN MERKATARITZA DOLARRETAN
Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
INPORTAZIOAK								
Guztira	22,0	19,3	0,6	1,4	0,3	-12,6	-2,5	11,2
Ipar Amerika	23,2	15,2	3,2	0,1	3,3	-4,5	-2,9	7,3
Europa	13,1	17,4	-4,3	1,4	1,2	-13,2	0,4	9,8
EB-barne	9,8	15,9	-7,1	3,3	3,4	-12,6	1,3	9,6
EB-kanpo	17,7	18,7	-4,0	-3,1	0,4	-14,7	-1,3	10,6
Japonia	25,7	23,2	3,6	-6,1	-2,4	-20,2	-6,2	10,6
Txina	38,8	24,9	4,3	7,2	0,5	-14,3	-5,5	16,0

Inportazioen atalean, eremu guztiek hazkundea bizkortu zuten. Munduko inportatzaile nagusia Europa izan zen berriro eta bere erosketak handitu zituen eremuaren barnean zein kanpoan. Asiak ere sendo areagotu zituen erosketak, bi urtez jarraian etengabeko beherakadak jaso ondoren, baina, gainontzeko eremuak ez bezala, indarra galdu zuen urtean zehar. Moteltzeko joera hori Txinak baldintzatu zuen, erosteko erritmoa galgatu zuelako. Hain zuzen ere, urte hasieran %24 inguru handitu zituen bere erosketak, baina laugarren hiruhilekoan herrialde hartako inportazioak %12,5 hazi ziren. Tasa hori oraindik garrantzitsua da, baina lehen laurdenean jasotakoaren ia erdia da.